

Osoko bilkura

Azkoitia, Intsausti jauregian

2015eko martxoaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejitak ahala Jabier Kaltzakortari (13:00etatik aurrera); Miren Azkara-

tek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Azkoitian, Euskalerriko Adiskideen Elkartearen egoitzan, Intsausti jauregian hasi da, goizeko 10:10ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren martxoko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko programako gaiak gogorarazi ditu.

1. Osoko bilkuraren (2015-02-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

A. Iñigok bi ohar egin ditu: batetik, 2.2. ataleko azkeneko paragrafoan, «*latindar*, *liguriar* eta *asturiar* kentzea erabaki da» dator. Nolanahi ere, *latindar* ezin ken dai-teke, lehendik onartua dagoelako. Hala ageri da *Hiztegi Batua*ren 3. argitaraldian; bestetik, 3. ataleko laugarren paragrafoan, *aitatxi* hitza jarri beharrean *atautxi* hitza jarri behar da, *atautxi* izan baitzen proposatu eta onarturikoa.

Bi oharrak onartu dira Osoko bilkuran. Horiek horrela, bestelako oharrak egin ez denez, 2015eko otsailaren 27ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika

2.1. Jatorri germanikoa duten pertsona-izenen grafia. Aurkezturiko iruzki-nak aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz. Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria batzar-aretoa sartu eta bertan bilduak agurtu ondoren, ohar bakarra jaso dela adierazi du. A. Iñigo euskaltzainak aurkezturiko oharrak zera dio: «Proposatutako irizpideak argiak iruditu zaizkit eta aplikatzeko modukoak. Zalan-tza bakarra 10. orrialdean proposatzen den *chi-/k(h)i-* elementua duten izenekin sortu zait. Irizpidea oso logikoa bada ere, iruditzen zait erabakia hartu aitzinetik birkontsideratu beharko litzatekeela erabileran egindako bidea. Izan ere, eranski-naren 9. eta 10. ataletan (dokumentuaren 14. orrialdean) emandako informazioa-ren arabera, euskal tradizioan, egungo literaturan, entziklopedietan eta eskola-li-buruetan erabat nagusi da *txi-* aldaera. Horregatik, egindako bidearen ondotik, orain *ki-*dun formak arautzeak euskararen normalizazioari zailtasuna ekarriko lio-keelakoan nago eta ez ote den beranduegi». M. Zalbidek ere kezka bera agertu du eta, besteak beste, irizpide soziolinguistikoak aipatuz, bai eta orain arte eginiko bi-dea kontuan hartuz ere, proposatutakoak erabiltzaileengan nahastea sorraraziko lukeela gaineratu du.

X. Kintana Exonomastika batzordeburuak bisigodoen hizkuntza zaharreko fone-ma *k* hasperenduna zela, eta alemanek *kh*, eta italiar eta katalanek *k* gisa ebakitzen dituztela argitu du. Germaniar izen zahar horiek euskal grafema moderno batekin janztea gehiegizko aldaketa iruditzen zaiola gaineratu du eta, bere ustez, hobe litza-teke, antzinateko izen klasikoan kasuan bezala jokatzera, *k*-rekin utzirik. M. Zalbi-dek ingelesek, aldiz, *ch*-rekin letraldatzen dutela gogorarazi du.

Adostasunik ez dagoenez, azkenean, gaia botoetara eramatea adostu da, emaitza ondorengo izanik: *tx* mantentzearen alde hamaika boto eman dira, *k* letraren alde bat, eta hamar boto zuri. Beraz, latinez *ch-z* idatziriko izen germaniko horietarako euskaraz *tx* grafia onartu da. Gainerakoan proposamena, lehenago, greziar eta la-tindar izen historiko eta mitologikoetarako jada erabilia, ontzat eman da.

2.2. Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta izenlagun erreferentzialak sortzeko irizpideak. «Atzerriko leku-izenetatik herritar-izenak eratzeko gidalerroak» txostena aurkeztu eta irakurri du A. Mujikak, eta toponimoen bukaeraren araberrako kasuistika egin du, kasuan kasuko adibideekin, Euskal Herriko toponimoetatik eratorritako herritar-izenetan ageri diren joera nagusietan oinarrituz proposamena, hau da, analogiaz jokatu. Exonomastika batzordeak aurkezturiko txostenean ongi azaldurik agertu dira bukaera ezberdinetako hitzak, bai eta bakoitzari normalenik dagozkion *-tar*, *-dar* edo *-ar* atzizkiak ere.

Aurkezturiko txostena dela eta, arau ala gomendio gisa onartu behar den galde-tu du A. Mujikak. Honi dagokionez, gomendio gisa onartzea ikusi da Osoko bilkuran. Amaitzeko, aurkezturiko txostenari idatziz oharrak egiteko azken eguna maia-tzaren laua, astelehena, izatea erabaki da.

3. Hiztegi Batua. Zerrenda osagarriak (famiaren inguruko saila, izen pro-pioetatik eratorriak eta *-(t)ar* osarakoak), aurkezturiko iruzkinak aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz.

Miriam Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua batzar-aretora sartu eta bertan bildurikoak agurtu ditu. Datuak aztertu ondoren, aurrekoan gaurko Osoko bilku-rarako utziriko *birraitita* hitza *Bizk.* markarekin mantentzea proposatu du lantal-deak. Halaxe egitea erabaki da.

Ondoren, famiaren inguruko sailarekin amaitzeko, aurreko Osoko bilkuran aztertzeko utziriko (dokumentuaren seigarren orrialdetik hamargarrenerako tartee-takoak) hitzak banan-banan aztertzen jardun du, horretarako lantaldeak erabiliriko arrazoiak-eta emanez. Horiek horrela, lantaldeak eginiko proposamen ia guztiak onartu dira. Proposatutakoetatik aldaketak edo zehaztapenak izan dituztenak on-doko hauek izan dira (azterturiko ordenaren arabera): *ezkonsenide* hitza isiltzea erabaki da; *haur besoetako*, berriz, sartzea erabaki da; *herengusu* eta *herengusina* mar-karik gabe sartzea erabaki da; *seme-alabatza* hitza sartzea erabaki da (lehendik araututa zeuden *semetza* eta *alabatza* formekin batera); *alabaizun* forma arau-tuari kategoria (iz.) eta definitzailea ('alabaordea') gehitzea erabaki da, bileran ber-tan onartu den «semeizun iz. "semeordea"» sarrerarekin parekotasuna mantentze-ko; lehendik araututako *seme nagusi* formari *Bizk.* marka kentzea erabaki da.

Puntu honekin bukatzeko, M. Urkiak X. Videgain euskaltzainak azken orduan beste ekarpen bat egin duela adierazi du. X. Videgainek, *familia*, *senide*, *jendaki* eta halakoen ondoan *askazi* hitza sartzea proposatu du. Eginiko proposamena jada *Hiz-tegi Batuan* (*ahaidea* eta *leinua*) datorrenez, bere horretan utzi du Osoko bilkurak.

Ondorioz, familiaren inguruko saila egintzat eman da Osoko bilkuran. Honi dagokionez, familia-loturen behin betiko bertsioa bidaltzeko eskatu dute euskaltzainek, beraz, halaxe egingo da Idazkaritzatik. Hurrengo Osoko bilkurarako izen propioetatik eratorriak eta *-(t)ar* osaerakoak laga dira.

4. Euskaltzain urgazle berriak izendatzeko irizpideak. Bidaliriko iruzkinak aurkeztu, aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz

E. Osa idazkariordeak aurreko Osoko bilkuran eskatutakoari kasu eginez, urgazleen batez besteko adina (oro har eta lurraldeka), bai eta batzordeetan, lantaldeetan eta egitasmoetan urgazleen partaidetza jasoz, aurrekoan aurkezturiko txostena osatu eta berriz aurkeztu du. Ondoren, P. Uribarren euskaltzainak prestatuturiko txostena kontuan hartuz, irizpideei buruz irekiriko gogoeta aldian, M. L. Oñederra eta A. Urrutia euskaltzainek ekarpen bana aurkeztu dutela adierazi du. Bi ekarpenak banatu eta irakurri dira Osoko bilkuran.

M. L. Oñederrak «Euskaltzain urgazleak txostenaz oharrak» deituriko idatzian, besteak beste, «euskaltzain urgazle berriak atzerriko hizkuntzalarien artean» barik, «bertoko zein atzerriko hizkuntzalarien artean» jarri beharko litzatekeela uste du. Era berean, lau multzoko bi zerrendak antzekoak izan arren, ez dira gauza bera, eta bere aburuz, «egoki litzateke elkarren artean nola lotzen diren eta zertan bereizten diren» agertzea. 2. orrialdeko zerrendako 2) paragrafoko azken esaldian («Beraz, zuzendaritzak bere kabuz nahiz euskaltzain oso, batzorde eta lantaldeen eskariak bideratuz...») azpimarratutakoa gehitzea eskatzen du, hobeki ulertzeko. Bigarren orrialdekoazken-aurreko paragrafoan aipatzen den adin baldintza kentzea edo biguntzea eskatzen du. Azkenik, txostenaren estatusarekin loturiko kontu formal batzuk bileran eztabaida daitezkeela dio.

A. Urrutiak bere ekarpenean lau puntu hauek proposatu ditu, P. Uribarren euskaltzainak aurkezturiko testua praktikan jartzeko baliagarri izan daitekeelakoan:

- a. Urgazleak lurraldez lurralde hautatzea, lurralde bakoitzaren premien arabera.
- b. Hautatzeko ordena hauxe izatea: lehenik Araba, hurrengo Nafarroa, gero Bizkaia eta Gipuzkoa (bi-biak batera), gero atzerriko euskalariak eta Ahoskera batzordetik izendatu beharrekoak. Azkenik, Iparraldekoak.
- c. Egutegiari eta kopuruari dagokienez, uda aurretik Araba (3), uda ostean Nafarroa (3); urtearen bukaeran edota datorren urtearen hasieran Bizkaia (3) eta Gipuzkoa (3); atzerriko euskalariak (2) eta Ahoskera batzordekoa (1); 2016ko udaberrian Iparraldea (3).

- d. Izendapenak egin aurretik hautagaien profilak zehaztu beharko lirateke, eta hautagaiekin mintzatu, haiekin adostasuna lortzeko.

P. Uribarrenek esan du azken aldian aldaketa demografiko handiak izan direla, Araban batez ere. Urgazleak aukeratzean hori kontuan harturik, bere ustez, Arabako, 5-6 urgazle izendatu beharko lirateke. Euskaltzainburuak, aurretik, Arabako eta Nafarroako euskaltzainekin biltzea proposatu du, horiekin aurrelana egiteko, hortik behar direnak proposatu ahal izateko.

P. Goenagak esan du ezer baino lehen galdetu beharko litzatekeela ea zertarako diren urgazleak, orain arte ez baikara haietaz baliatu behar bezala. A. Arkotxak postu horiek gazteei eskaini behar zaizkiela esan du. X. Videgainek, ordea, galdetu du zenbat urgazle izan diren eta noiz izendatu diren. Azpitik ez dela mugarik jarri behar pentsatzen du. Badira, halaber, kanpoko euskalariak ere. Horiekin zer egin, zer eskatu... eskaintza erakargarriak egin behar zaizkiela azpimarratu du.

P. Uribarrenek Euskaltzaindiaren Arautegiko eta Barne-erregelatuko artikulua batzuk irakurri ditu. Ez dio batzordeetan egon behar dutenik, euskararen alde lan egitea baino. Uzten al diegu parte hartzen? Arautegia eta Barne-erregelak bete behar ditugula gaineratu du. Tx. Peillenek dio kanpotarrak ere kontuan hartu behar ditugula. M. L. Oñederrak etxeko hizkuntzalariak kanpokoak bezala kontuan hartzea nabarmendu du, horien artean jende egokia dagoenean. P. Uribarrenek hautagaiak adostasunez izendatzea nahiago luke.

A. Urrutiak aurrelan bat egin daitekeela uste du: izendatzeko profila prestatuz eta eztabaidan jarritz. Eztabaidaren amaiera gisa, hobetsi da Zuzendaritzak lurralde bakoitzeko euskaltzainekin hitz egin ondoren, euskaltzain urgazlegai berriak Osoko bilkurara ekartzea. Hasi, Arabatik hasiko da, ondoren, gainerako lurraldeetako proposamenei ekiteko.

5. Batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2014. urteko errendapenak eta 2015. urteko planak, aurkezpena

Idazkariordeak batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2014. urteko errendapenak aurkeztu ditu, bai eta 2015. urteko ardatzak eta planak ere. Banaturiko idatzian, batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek aurkezturiko errendapenak eta planak jaso dira. Aurkezpenaren ondoren, ekarpenak eta egiteko aldia ireki da, apirilaren 14an 12:00etan amaitzen dena.

6. 2014. urteko balantze ekonomikoaren aurrerapena eta 2015. urteko aurrekontua, aurkezpena.

S. Aleman diruzainak hitza hartu du. Iaz Euskaltzaindiak jarririko helburuak bete izan direla esan du. Bere ustez aurrekontu orekatuak izan dira eta, beraz, Euskaltzaindiaren ekonomia kudeaketa ondo bideratzen ari da. Ondoren, J. Zabaleta kudeatzaileari hitza eman eta beronek paperean aurkezturiko 2014. urteko balantze ekonomikoaren aurrerapena irakurri du. Jarririko helburua, hots, aurrekontuak orekatzea lortu izan da, azken lau urteotan bezala, eta xeheki azaldu ditu. Oro har, gauzak ondo joan dira, uste baino diru gehiago jaso dugulako. Ondoren, 2015eko aurrekontuari dagokionez, berau ere, bere ustez, ondo joango zaigu. Datu orokorrak eman eta gero aurrekontuak prestatzeko irizpideak xeheki ere azaldu ditu.

A. Arkotxak aurrekontu-proposamenean ageri diren izen batzuei buruzko argibideak eskatu ditu, eta programa-kontratua moduko terminologia, bere ustez nahasgarria dela iritzita, terminologia aldatzea proposatu du. Halaxe egitea erabaki da.

A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi du Zuzendaritzak Osoko bilkurari 2015. urteko behin-behineko aurrekontuei behin-behineko onarpena ematea eskatzen duela adierazi du. Kontrako iritzirik ez dagoenez, ontzat eman da eskaera hori. Ondoren, aurkezturiko aurrekontuei iruzkinak-eta egiteko aldia ireki da, apirilaren 14an 12:00etan amaitzen dena.

7. Eskuartekoak

7.1. Espainiako Sari Nazionalak. Literatura Ikerketa batzordeak, bai eta Zuzendaritzak ere, epaimahaietako kide izateko proposatzen dituenak honako hauek dira:

- Premio Nacional de las Letras Españolas: A. Toledo eta A. Iñigo.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía): S. Gartzia eta M. Billelabeitia.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía Joven «Miguel Hernández»): K. Bijueska eta A. Jauregizar.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Infantil y Juvenil): J. Manuel Lopez Gaseni eta A. Agiriano Altuna.
- Premio Nacional de Literatura (Narrativa): K. Agirre eta J. Kortazar.
- Premio Nacional de Literatura (Ensayo): P. Urkizu eta M. Azkarate.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática): J. Valverde eta A. Olaizola.
- Premio Nacional a la Mejor Traducción: X. Kintana eta S. Aleman.
- Premio Nacional a la Obra de un Traductor: X. Kintana eta S. Aleman.
- Premio Nacional de Periodismo Cultural: A. Arejita eta P. Kaltzada.

Eginiko proposamenak berretsi dira Osoko bilkuran.

7.2. Ramón Rubial Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzak.

Lankidetzak-hitzarmena izenpetu da Bilbon, 2015eko martxoaren 23an. Hitzarmenaren helburua Ramón Rubial Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzarako oinarri nagusiak ezartzea da. Hala, euskara hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea izango da bi erakundeon xedeetako bat. Era berean, Fundazioa eta Akademia elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizaziorako proiektuak garatzeko, eta Ramón Rubial Fundazioaren barruan eta beronen bitartez Euskaltzaindiak euskarari buruz emandako arauak edo gomendioak zabaltzeko.

7.3. Gaur banatuko diren liburuak.

Honako hauek:

- Blanca Urgellek paraturiko Axularren Geroren edizio kritikoa (Mendaur bilduma VI), martxoaren 3an Iruñean aurkeztu zena.
- B. Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren 8. zenbakia. Bilbon, egoitzan, martxoaren 26an aurkezturikoa.

7.4. Hurrengo bilkurak.

Onarturiko urteko egutegiaren arabera, ondoko hauek:

- Osoko bilkura Bilbon egingo da, egoitzan, apirilaren 24an, 09:30ean.
- XIX. Barne Jardunaldiak, Bilbon egingo dira, egoitzan, apirilaren 24an, 12:00etatik aurrera.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta besterik ez dela, 14:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Azkoitian, 2015eko martxoaren 27an

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena gogora ekartzeko.

Azkoitian, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen egoitzan, arratsaldeko 17:00etan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena gogora ekartzeko, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Antonio Campos eta Maite Idirin.

Euskaltzain urgazleak: Jesus Maria Etxezarreta eta Koro Segurola.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Juan Bautista Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako presidentea, bai eta elkarte honetako hainbat kide ere.

Urrategi Alberdi Azkoitiko alkatea eta zinegotziak.

1764an sortu zen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen urteurrena ospatzeko, zenbait ekimen antolatu dira, horien artean, gaur egin den Euskaltzaindiaren Ageriko bilkura. Urrategi Alberdi Azkoitiko alkateak eman dio hasiera ekitaldiari, hurreratu diren guztiak agurtuz eta ondoan izan dituen bi erakundeek ekarpena, bi-biek Euskal Herriarekiko erakutsiriko konpromisoa, azpimarratuz. Era berean,

haien zereginetan segitzeak eta arrakastarik handiena izateak daukaten garrantzia azpimarratu ditu.

Ondoren, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Gipuzkoako presidentek, Juan Bautista Mendizabalek, Azkoitiko Udalari eta Euskaltzaindiari elkartearen esker ona adierazi die. Euskararen Akademiari dagokionez, laster mendea betetzea doala-eta, eginikoaren aitortza eta bi elkarten artean partekatu dituzten egitasmoak ekarri ditu gogora. Haren hitzetan, eginiko bidean urratsak ematen segitzea garrantzi handikoa da Euskal Herriaren gizarte eta kultur garapenerako. Bere mintzaldia bukatzean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kide gisa dagokion ezaugarria erantzi eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kide ere baden A. Urrutia euskaltzainburuari jarri dio.

Euskaltzainburuak Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen gonbita eskertu du. Bere mintzaldian, Euskal Herria gizartetik ehuntzen eta garatzen laguntzen duten kultur erakundearen garrantzia eta gizartearen partaidetza goraiatu ditu, horiek guztiak bere etorkizuna eskuan hartu nahi duen gizarte bizi baten adierazgarririk behinenak dira eta.

Ondoren, urteurrena baliatuz, Bergarako hainbat musikaririk eta artistak egindako Peñafloredako Kondearen *Mozkorra barregarri* operaren zati batzuk eskaini dituzte. Kantariak, Gorka Unamuno, Marije Ugalde, Julen Alberdi, Karlos Etxaniz eta Fran Martinez izan dira, eta Leo Juaristi, piano jotzailea; Jose Migel Elkorok egin ditu aurkezpen lanak.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eta Euskaltzaindiak opari bana egin diote elkarri. Akademiak Elkarteari hiru liburu eman dizkio, bere bibliotekarako: Axularren *Gero* liburuaren ale bat eta Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* argitalpenaren bi ale. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, aldiz, erakundearen Estatutuen lehenengo artikulua jasotzen duen oroigarri bat eman dio Euskaltzaindiari.

Hurreraturiko guztiak zutitu direla, *Agur jaunak* abestu eta arratsaldeko 17:45ean bukaera eman zaio Ageriko bilkurari.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urutiaga,
idazkaria